

<p>Bizkaiko Foru Aldundiaren ___/2018 FORU DEKRETU PROIEKTUA, _____ren __ (e)koa. Honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetzen dituen Araudia eta Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia aldatzen dira.</p>	<p>PROYECTO DE DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia ___/2018, de __ de _____ por el que se modifican el Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia y el Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación.</p>
<p>Foru-dekretu honen bidez, aldaketak egiten dira zergei buruzko bi araubidetan: Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak arautzen dituen araudian (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) eta Fakturazio-betebeharrak arautzen dituen araudian (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).</p>	<p>El presente Decreto Foral introduce modificaciones en dos reglamentos tributarios: el Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 205/2008, de 22 de diciembre y el Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 4/2013, de 22 de enero.</p>
<p>Urtarrilaren 1etik, hilabete naturalarekin bat datorren likidazio-aldia duten enpresaburuek edo profesionalek eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren beste subjektu pasiboek sistema berri bat erabiltzen dute BEZaren erregistro-liburuak egiteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez (behin-behinean, Bizkaibai zerbitzuaren bidez).</p>	<p>Desde el pasado 1 de enero los empresarios, empresarias, profesionales y otros sujetos pasivos del Impuesto sobre el valor Añadido cuyo periodo de liquidación coincide con el mes natural utilizan un nuevo sistema de llevanza de los libros registro del IVA a través de la Sede Electronica de la Diputación Foral de Bizkaia (transitoriamente Servicio Bizkaibai).</p>



<p>Balio Erantsiaren gaineko Zergan informazioa berehala emateko sistema txertatzeko, tributuen arloko zenbait erregelamendu aldatzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko ekainaren 20ko 82/2017 Foru Dekretuaren bidez, BEZaren erregistro-liburuak egiteko sistema berria arautzeko, erregelamenduetan egin beharreko aldaketak sartu ziren Bizkaiko tributuen arloko ordenamenduan.</p>	<p>Por medio del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 82/2017, de 20 de junio, por el que se modifican varios Reglamentos de carácter tributario para la introducción del Suministro Inmediato de Información en el Impuesto sobre el Valor Añadido, se incorporaron al ordenamiento tributario de Bizkaia las modificaciones reglamentarias necesarias para regular el nuevo sistema de llevanza de los libros registros del IVA.</p>
<p>Aldaketa horien artean, nabarmendu behar da Bizkaiko Lurralde Historikoaren zergabetebehar formalak arautzen dituen araudian 39 terdecies artikulua berria sartu zela. Artikulu horrek erregistroak elektronikoki igortzeko epeak arautzen ditu, BEZaren Erregelamenduaren 69 bis artikuluan ezarritakoaren ildotik.</p>	<p>Entre estas modificaciones, hay que mencionar la inclusión en el Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, de un nuevo artículo 39 terdecies que regula los plazos para la remisión electrónica de los registros, en terminos similares a los establecidos en el artículo 69 bis del Reglamento del IVA.</p>
<p>Duela gutxi, 2017ko abenduaren 29ko 105/2017 Errege Dekretua onetsi da. Haren bidez, besteak beste, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu da, eta zenbait doikuntza tekniko sartu dira kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu behar zaien eragiketen fakturazio-erregistroak elektronikoki igortzeko epeei dagokienez eta erregistroko idatzoharren zuzenketak jakinarazteko epeei dagokienez (zergapekoa akatsaz ohartzen den uena</p>	<p>Recientemente se ha aprobado el Real Decreto 105/2017, de 29 de diciembre, por el que se modifican, entre otros, el Reglamento del Impuesto sobre el Valor el cual introduce una serie de ajustes tecnicos en materia de plazos para la remisión electrónica de los registros de facturación para las operaciones a las que sea de aplicación el régimen especial del criterio de caja, y para la comunicación de la rectificación de las anotaciones registrales</p>



<p>jartzen da erreferentzia gisa). Halaber, zehazten da igortzeko epearen erreferentzia izango dela zergari lotu gabeko eragiketa, faktura egitea behar zuena, egin den data, baita faktura egiteko epea, edo, bestela, faktura zuzentzaileen kasuan, kontabilitateko erregistroa egiteko epea ere.</p>	<p>que queda referenciada al momento en que el obligado tributario tenga constancia del error. Igualmente, se precisa que el plazo de remisión quedará referenciado a la fecha en que se haya realizado la operación que no estuvo sujeta al Impuesto por la que se hubiera debido expedir factura, y al propio plazo de su expedición o, en su caso, de su registro contable, cuando se trate de facturas rectificativas.</p>
<p>Kontuan hartuta Balio Erantsiaren gaineko Zerga Estatuak une bakoitzean ezarritako edukizko eta formazko arau berberak bete behar dituen itundutako zerga bat dela, aipatutako doikuntza tekniko horietara egokitu behar dira Bizkaiko Lurralde Historikoaren zerga-betebehar formalak arautzen dituen Araudian jasotako arauak.</p>	<p>Teniendo en cuenta que el Impuesto sobre el Valor Añadido es un impuesto concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado, es preciso adaptar la normativa contenida en el Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia a estos ajustes técnicos mencionados.</p>
<p>Fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Araudiar dagokionez, aldaketaren xedea da Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiari eskumen gehiago ematea fakturak zuzentzeko prozedurak baimentzeko. Horrez gainera, doikuntza tekniko bat egin da faktura zuzentzaileak igortzeko epeari dagokionez.</p>	<p>En referencia al Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación, la modificación tiene como finalidad la ampliación de la competencia de la Dirección General de Hacienda, en materia de autorización de los procedimientos de rectificación de facturas. Además, se realiza un ajuste técnico en lo referente al plazo para la remisión de las facturas rectificativas.</p>
<p>Bestalde, eguneratu egin da zenbait zerbitzu-prestazio fakturatzeko araubidea, bidaia-</p>	<p>Por otra parte, se actualiza el régimen de facturación de determinadas prestaciones</p>



<p>agentziak beste enpresaburu edo profesionalen izenean eta haien kontura diharduten kasuetarako, fakturatzeko prozedura berezi hau aplikatu behar zaien zerbitzu berriak sartzeko, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egiteko sistema berria ezarri ondoren, eragiketen kontrola behar bezala bermatuta baitago.</p>	<p>de servicios en cuya realización intervienen agencias de viajes en nombre y por cuenta de otros empresarios o profesionales, para incluir nuevos servicios a los que será aplicable este procedimiento especial de facturación, una vez que, implantado el nuevo sistema de llevanza de los libros registro del Impuesto sobre el Valor Añadido a través de la Sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, se garantiza el necesario control de las operaciones.</p>
<p>Adierazi behar da foru-dekretu honen izapidetzea lege eta dekretu hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.</p>	<p>Se debe señalar que la tramitación de este Decreto Foral se ha llevado a cabo de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, sobre la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.</p>
<p>Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.</p>	<p>Asimismo se han observado los trámites previstos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.</p>
<p>Ondorioz, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru</p>	<p>Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas, previa</p>



Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2018ko ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau	deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral en su reunión de de de 2018,
XEDATZEN DUT:	DISPONGO:
1. artikulua. <i>Aldatzea Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetzen dituen Araudia; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori.</i>	<i>Artículo 1. Modificación del Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 205/2008, de 22 de diciembre.</i>
Aldaketak egiten dira Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetzen dituen Araudian (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori), eta hona zer aldaketa egiten zaizkion:	Se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento por el que se regulan las obligaciones tributarias formales del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 205/2008, de 22 de diciembre:
Bat. Berridatzi egiten da 39.terdecies artikulua, eta honela geratu da idatzita:	Uno. Se da nueva redacción al artículo 39.terdecies, que queda redactado en los siguientes términos:
«39.terdecies artikulua. Fakturazio-erregistroak elektronikoki igortzeko epeak	“Artículo 39.terdecies. Plazos para la remisión electrónica de los registros de facturación.



<p>1. Araudi honen 39. artikuluko 5. zenbakian aipatzen diren pertsonen eta entitateen kasuan, fakturazio-erregistroak epe hauetan hornitu behar dira:</p>	<p>1. En el caso de las personas y entidades a que se refiere el apartado 5 del artículo 39 de este Reglamento, el suministro de los registros de facturación deberá realizarse en los siguientes plazos:</p>
<p>a) Egindako fakturei buruzko informazioa faktura egin eta lau egun naturaleko epearen barruan hornitu behar da, hartzaileak edo hirugarren batek egindako fakturak direnean izan ezik; izan ere, azken kasu horretan, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 164 artikuluko 2 zenbakian ezarritakoarekin bat, zortzi egun naturaleko epea egongo da informazio hori hornitzeko. Kasu batean zein bestean, erregistratu beharreko eragiketari dagokion zergaren sortzapena gertatu aurreko hileko 16a baino lehen hornitu behar da informazio hori. Hala ere, zergari loturik ez dauden, baina faktura egitea behar duten eragiketak direnean, azken epe hori zehazteko, eragiketa egin zen data hartuko da erreferentziazat.</p>	<p>a) La información correspondiente a las facturas expedidas, en el plazo de cuatro días naturales desde la expedición de la factura, salvo que se trate de facturas expedidas por el destinatario o por un tercero, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado Dos del artículo 164 de la Norma Foral 7/1994, de 9 de noviembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido, en cuyo caso, dicho plazo será de ocho días naturales. En ambos supuestos el suministro deberá realizarse antes del día 16 del mes siguiente a aquel en que se hubiera producido el devengo del Impuesto correspondiente a la operación que debe registrarse. No obstante, tratándose de operaciones no sujetas al Impuesto por las que se hubiera debido expedir factura, este último plazo se determinará con referencia a la fecha en que se hubiera realizado la operación.</p>
<p>b) Jasotako fakturei buruzko informazioa lau egun naturaleko epean hornitu behar da, faktura kontabilitatean erregistratzen den</p>	<p>b) La información correspondiente a las facturas recibidas, en un plazo de cuatro días naturales desde la fecha en que se produzca</p>



<p>egunetik zenbatuta, eta, edozelan ere, eragiketei dagokien likidazio-aldiaren osteko hileko 16a baino lehen.</p>	<p>el registro contable de la factura y, en todo caso, antes del día 16 del mes siguiente al periodo de liquidación en que se hayan incluido las operaciones correspondientes.</p>
<p>Inportazio-eragiketen kasuan, aduanan likidatutako kuota agerrarazten duen dokumentua kontabilitatean erregistratzen den egunetik zenbatuko dira lau egun natural horiek, baina, edozelan ere, eragiketei dagokien likidazio-aldiaren osteko hileko 16a baino lehen hornitu behar da informazio hori.</p>	<p>En el caso operaciones de importación, los cuatro días naturales se deberán computar desde que se produzca el registro contable del documento en el que conste la cuota liquidada por las aduanas y en todo caso antes del día 16 del mes siguiente al final del periodo al que se refiera la declaración en la que se hayan incluido.</p>
<p>c) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiaren 66. artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren eragiketei buruzko informazioa ere lau egun naturaleko epean hornitu behar da, bidalketa edo garraioa hasten den unetik zenbatuta, edo, bestela, kasuan kasuko eragiketako ondasunak jasotzen diren unetik zenbatuta.</p>	<p>c) La información de las operaciones a que se refiere el apartado 1 del artículo 66 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, en un plazo de cuatro días naturales, desde el momento de inicio de la expedición o transporte, o en su caso, desde el momento de la recepción de los bienes a que se refieren.</p>
<p>d) Egindako eta jasotako faktura zuzentzaileei buruzko informazioa lau egun naturaleko epean hornitu behar da, faktura egin edo fakturaren kontabilitateko erregistroa, hurrenez hurren, egin zen egunetik zenbatuta.</p>	<p>d) La información correspondiente a las facturas rectificativas expedidas y recibidas, en el plazo de cuatro días naturales desde la fecha en que se produzca la expedición o el registro contable de la factura, respectivamente.</p>
<p>Hala ere, zuzenketaren ondorioz, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko abenduaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren</p>	<p>No obstante, en el caso de que la rectificación determine un incremento del importe de las cuotas inicialmente deducidas</p>



<p>114.Bi.1 artikuluan xedatutakoaren arabera hasieran kendutako kuoten zenbatekoa gehitzen bada, aurreko b) letran jasotako fakturentzat ezarritakoa izango da epea.</p>	<p>de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 114. Dos.1 de la Norma Foral 7/1994, de 9 de noviembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido, el plazo será el previsto en la letra b) anterior para las facturas recibidas.</p>
<p>Aurreko a), b) eta c) letretan aipatzen diren lau eta zortzi egun naturaleko epeak zenbatzeko ez dira aintzat hartuko egun baliogabeak.</p>	<p>A efectos del cómputo del plazo de cuatro u ocho días naturales a que se refieren las letras a), b) y c) anteriores, se excluirán los días inhábiles.</p>
<p>2. Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu behar zaien eragiketei buruz hornitu beharreko informazioaren kasuan, aurreko paragrafoetan adierazitako epeetan hornitu beharko da informazio hori, eragiketoi araubide berezi hori aplikatu beharko ez balitzaie bezala, baina kontuan hartuta eragiketa horiei lotutako kobrantza edo ordainketa osoak edo partzialak egiten direnean ere zenbait datu hornitu beharko direla.</p>	<p>2. El suministro de la información correspondiente a las operaciones a las que sea de aplicación el régimen especial del criterio de caja deberá realizarse en los plazos establecidos en los apartados anteriores, como si a dichas operaciones no les hubiera sido de aplicación dicho régimen especial, sin perjuicio de los datos que deban suministrarse en el momento en que se efectúen los cobros o pagos totales o parciales de las operaciones.</p>
<p>Kobrantza eta ordainketei buruzko informazioa lau egun naturaleko epean hornituko da, kobrantza edo ordainketa egin zenetik zenbatuta.</p>	<p>La información correspondiente a los cobros y pagos se realizará en el plazo de cuatro días naturales desde el cobro o pago correspondiente.</p>
<p>3. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiaren 70. artikuluan aipatzen diren erregistroko zuzenketan kasuan, zuzenketa horiek jasotzen dituzten fakturazio-erregistroak hornitu behar dira, hain zuzen,</p>	<p>3. En el caso de rectificaciones registrales a que se refiere el artículo 70 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, el suministro de los registros de facturación que recojan tales rectificaciones debiera</p>





<p>zergapekoa egin duen akatsaz ohartzen den aldia amaitu osteko lehenengo hileko 16a baino lehen.»</p>	<p>realizarse antes del día 16 del mes siguiente al final del periodo en el que el obligado tributario tenga constancia del error en que haya incurrido.”</p>
<p>2. artikulua. <i>Aldatzea Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori.</i></p>	<p>Artículo 2. <i>Modificación del Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 4/2013, de 22 de enero.</i></p>
<p>Honako aldaketa hauek egiten dira Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudian:</p>	<p>Se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 4/2013, de 22 de enero:</p>
<p>Bat. Berridatzi egiten da 15. artikuluko 4. zenbakia, eta honela geratu da idatzita:</p>	<p>Uno. Se da nueva redacción al apartado 4 del artículo 15, que queda redactado en los siguientes términos:</p>
<p>«4. Zuzenketa egiteko, beste faktura bat egingo da, zuzendutako fakturaren identifikazio-datuak jasoko dituena. Zuzentze-agiri bakarrean egingo ahal izango da faktura batzuen zuzenketa, betiere zuzendutako faktura guztien identifikazio-datuak jasotzen badira. Baina, eragiketabolumenagatik deskontuak edo hobariak ematearen ondorioz, zerga-oinarria aldatzen denean eta Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak hala baimendutako kasuetan, ez da beharrezkoa izango zuzendutako fakturak</p>	<p>“4. La rectificación se realizará mediante la emisión de una nueva factura en la que se haga constar los datos identificativos de la factura rectificada. Se podrá efectuar la rectificación de varias facturas en un único documento de rectificación, siempre que se identifiquen todas las facturas rectificadas. No obstante, cuando la modificación de la base imponible tenga su origen en la concesión de descuentos o bonificaciones por volumen de operaciones, así como en los demás casos en que así se autorice por la</p>



identifikatzea; nahikoa izango da fakturari dagokion epealdia zehaztea.	Dirección General de Hacienda, no será necesaria la identificación de las facturas, bastando la determinación del periodo al que se refieran.
Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak fakturak zuzentzeko beste prozedura batzuk baimendu ahal izango ditu, interesdunek eskatuta, jarduera-sektore horretako merkataritza- edo administrazio-jardunbideengatik justifikatuta dagoenean.»	La Dirección General de Hacienda podrá autorizar otros procedimientos de rectificación de facturas, previa solicitud de los interesados, cuando quede justificado por las prácticas comerciales o administrativas del sector de actividad de que se trate.”
Bi. Berridatzi egiten da 18. artikulua, eta honela geratu da idatzita:	Dos. Se da nueva redacción al artículo 18, que queda redactado en los siguientes términos:
<b>«18. artikulua. Fakturak igortzeko epea</b>	<b>“Artículo 18. Plazo para la remisión de las facturas.</b>
Fakturak igortzeko betebeharra –zeina 17. artikuluan ezartzen den– une honetan bete behar da: fakturak egiten diren une berean; edo, hartzailea enpresaburua edo hala jarduten duen profesional bat denean, eragiketa horri dagokion zergaren sortzapena gertatu osteko hileko 16a baino lehen; edo, kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu behar zaien eragiketen kasuan edo faktura zuzentzaileen kasuan, eragiketa egin osteko edo faktura egin osteko hileko 16a baino lehen.»	La obligación de remisión de las facturas que se establece en el artículo 17 deberá cumplirse en el mismo momento de su expedición o bien, cuando el destinatario sea un empresario o profesional que actúe como tal, antes del día 16 del mes siguiente a aquél en que se haya producido el devengo del Impuesto correspondiente a la citada operación o en el caso de las operaciones acogidas al régimen especial del criterio de caja o de facturas rectificativas antes del día 16 del mes siguiente a aquel en que se hubiera realizado la operación o se hubiera



	expedido la factura respectivamente.”
Hiru. Aldatu egiten dira hirugarren xedapen gehigarriaren 1, 2, 3, 6 eta 7. zenbakiak, eta honela geratu dira idatzita:	Tres. Se modifican los apartados 1, 2, 3, 6 y 7 de la disposición adicional tercera, que queda redactada en los siguientes términos:
«1. Xedapen gehigarri honetan ezarritakoaren arabera egingo dira honako baldintza hauek betetzen dituzten zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten fakturak:	“1. Se expedirán de acuerdo a lo establecido en esta disposición adicional las facturas que documenten las prestaciones de servicios en las que concurren los requisitos siguientes:
a) Zerbitzu-prestazioen kontratazioan beren izenean edo inoren kontura bitartekari gisa dihardutenak bidaia-agentzien izaera duten enpresaburuak edo profesionalak izatea, sektorearen araudiarekin bat.	a) Que consistan en prestaciones de servicios en cuya contratación intervengan como mediadores en nombre y por cuenta ajena empresarios o profesionales que tengan la condición de agencias de viajes de acuerdo con la normativa propia del sector.
b) Hartzailea edozein dela ere, bidaia-agentziari halako zerbitzuei dagokien faktura eskatzea.	b) Que, cualquiera que sea la condición del destinatario, solicite a la agencia de viajes la expedición de la factura correspondiente a tales servicios.
c) Zerbitzu hauetako edozein izatea:	c) Que se trate de cualquiera de los siguientes servicios:
a') bidaiarien eta haien ekipajeen garraioa;	a') transporte de viajeros y sus equipajes;
b') ostalaritza-, kanpaketa- eta bainuetxe-zerbitzuak;	b') hostelería, acampamento y balneario;
c') sukaldaritza eta cateringa;	c') restauración y catering;
d') garraiobideen epe laburrerako	d') arrendamiento de medios de transporte a



errentamendua;	corto plazo;
e') museo, arte areto, pinakoteka, monumentu, toki historiko, lorategi botaniko, parke zoologiko, parke natural eta antzeko ezaugarriak dituzten naturagune babestuetarako bisitaldiak;	e') visitas a museos, galerías de arte, pinacotecas, monumentos, lugares históricos, jardines botánicos, parques zoológicos y parques naturales y otros espacios naturales protegidos de características similares;
f') kultura-, arte-, kirol-, zientzia-, hezkuntza- eta jolas-adierazpenetan eta azoka eta erakusketetan parte hartzeko zerbitzuak;	f') acceso a manifestaciones culturales, artísticas, deportivas, científicas, educativas, recreativas, ferias y exposiciones;
g') bidaia-aseguruak.	g') seguros de viajes.
2. Faktura horiek ondoren adierazten diren datuak edo baldintzak izan behar dituzte (baina beste edozein aipamen jartzeko aukera egongo da):	2. Dichas facturas deberán contener los datos o requisitos que se indican a continuación, sin perjuicio de la posibilidad de incluir cualesquiera otras menciones:
a) Berariaz adierazi behar da bidaia-agentziak xedapen gehigarri honetan xedatutakoaren babesean egindako faktura dela.	a) La indicación expresa de que se trata de una factura expedida por la agencia de viajes al amparo de lo previsto en esta disposición adicional.
b) Araudi honen 6. artikuluan, edo, hala badagokio, 7. artikuluan aipatzen diren datuak eta baldintzak. Hala ere, faktura egin behar duenari buruzko datuen artean (6. artikuluko 1. zenbakiko c), d) eta e) letretan eta 7. artikuluko 1. zenbakiko d) letran jasotakoak), bidaia-agentziaren datuak jasoko dira, eta ez dira jasoko bitartekaritza-	b) Los datos y requisitos a que se refiere el artículo 6 o, en su caso, el artículo 7 de este Reglamento. No obstante, como datos relativos al obligado a expedir la factura a que se refiere el apartado 1.c), d) y e) del artículo 6 y el apartado 1.d) del artículo 7, se harán constar los relativos a la agencia de viajes, y no los correspondientes al



zerbitzua ematen duen enpresaburu edo profesionalarenak.	empresario o profesional que presta el servicio a que se refiere la mediación.
c) Horrez gainera, fakturretan dokumentatzen diren zerbitzu guztiak argi identifikatzeko aipamen bat jaso behar da, baita eragiketen hartzaileari dagokionez, 6. artikuluko 1. zenbakiko c), d) eta e) letretan aipatzen diren datuak ere. Halaber, fakturok gainerakoetatik bereizi behar dira, beste sail batean.	c) Adicionalmente, las facturas expedidas deberán contener una referencia inequívoca que identifique todos y cada uno de los servicios documentados en ellas, así como las menciones a que se refiere el apartado 1.c), d) y e) del artículo 6 del destinatario de las operaciones. Asimismo, estas facturas deberán expedirse en serie separada del resto.
3. Bidaia-agentziek xedapen gehigarri honetan aipatzen diren fakturen bidez dokumentatu ahal izango dituzte beren izenean edo inoren kontura hartzaileari ematen dizkieten bitartekaritza-zerbitzuak. Kasu horretan, bereiz jasoko dira araudi honetan xedatutakoaren arabera fakturan jaso behar diren bitartekaritza-zerbitzuari buruzko datuak.»	3. Los servicios de mediación en nombre y por cuenta ajena relativos a los servicios que la agencia de viajes preste al destinatario de los mismos, podrán también ser documentados por la agencia mediante las facturas a que se refiere esta disposición adicional. En tal caso, en la correspondiente factura deberán figurar por separado los datos relativos al mencionado servicio de mediación que deban constar en factura según lo previsto en este Reglamento.»
«6. Honelako fakturak egiten dituzten bidaia-agentziek erregistro-liburuetan idatziko dute faktura horien oharra. 1992ko abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 63. artikuluan dago araututa liburu hori. Oharrak idazten direnean, xedapen gehigarri honetako 1.	“6. Las agencias de viajes que expidan estas facturas deberán anotarlas en el libro registro de facturas expedidas, previsto en el artículo 63 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, aprobado por el Real Decreto 1624/1992, de 29 de diciembre.. Tales anotaciones deberán realizarse de manera que los importes correspondientes a



zenbakian aipatzen diren eragiketei dagozkien zenbatekoak 3. zenbakian aipatzen diren eragiketei dagozkien zenbatekoetatik eta beste agiri edo faktura batzuetako eragiketei dagozkien zenbatekoetatik bereizteko moduan islatuko dira.»	las operaciones a que se refiere el apartado 1 de esta disposición adicional puedan ser diferenciados de los importes correspondientes a los importes de los servicios a que se refiere el apartado 3 y de los importes correspondientes a operaciones recogidas en otros documentos o facturas distintas.”
«7. Honelako fakturak egiten dituzten bidaia-agentziek informazio hau jasoko dute hirugarren batzuekin egiten dituzten eragiketen urteko adierazpenean:	“7. Las agencias de viajes que expidan estas facturas deberán consignar, en su caso, la siguiente información en la declaración anual de operaciones con terceras personas:
a) Salmenten barruan, faktura horien bidez dokumentatutako zerbitzuei buruzko informazioa, ondo bereizita.	a) En concepto de ventas, la información relativa a los servicios documentados mediante las referidas facturas, debidamente diferenciada.
b) Erosketen barruan, bidaia-agentziak beste baten izenean eta kontura ari direnean emandako zerbitzu-prestazioei buruzko informazioa, ondo bereizita.»	b) En concepto de compras, la información relativa a las prestaciones de servicios en cuya realización intervienen actuando como mediadoras en nombre y por cuenta ajena a que se refiere esta disposición, debidamente diferenciada.”
Azken xedapenetatik lehena. <i>Baimena ematea</i>	Disposicion final primera. <i>Habilitación</i>
Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari foru-dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.	Se autoriza al diputado foral de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral.



Azken xedapenetatik bigarrena. <i>Indarrean jartzea</i>	Disposicion final segunda. <i>Entrada en vigor</i>
Foru dekretu hau argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.	El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación con efectos desde 1 de enero de 2018.
Bilbon, 2018ko (e)(a)n	En Bilbao, a de de 2018
	Ogasun eta Finantzen foru diputatua El diputado foral de Hacienda y Finanzas  JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ
Ahaldun Nagusia El Diputado General  UNAI REMENTERIA MAIZ	